

6. Mondragon Goi-Eskola Politeknikoa*

Dokumentu honetan Mondragon Goi Eskola Politeknikoan (MGEP), azken urteotan eman den Euskararen egoeraren bilakaera aztertuko da. MGEP, Mondragon Unibertsitatearen (MU) hiru partaideetariko bat da. Mondragon Unibertsitatea, 1997an sortutako unibertsitatea da. Aipatu bezala, hiru bazkidek edo fakultatek osatzen dute berau:

- ETEO Kooperatiba Elkarteak: Enpresa Zientzien Fakultatea.
- HUHEZI Kooperatiba Elkarteak: Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.
- Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (MGEP): Ingeniaritza Eskola.


Nahiz eta MUren gaztetasuna nabarmena izan unibertsitate bezala, MGEPk nahiko historia luzea dauka bizkar gainean, 1943. urte-

an sortua baita Lanbide Heziketako eskola gisa, Jose Maria Arizmendiarieta Arrasateko kooperatiben bultzatzaile nagusiaren eskutik. 1968. urtean Ingeniaritza Teknikoko Eskolari zegokion onarpen ofiziala lortu zuen. Gaur egun bere jardura nagusia Lanbide Heziketako zikloen eskaintzaz gain, Ingeniaritzako arloen irakaskuntzan zein ikerketa eta garapenean datza. Egun jorratzen diren arlo edo berezitasunak honoko hauek dira:

- Mekanika.
- Elektronika.
- Informatika.
- Industri diseinua.
- Antolakuntza.
- Telekomunikazioak.

Ingeniaritza-tituluek arlo horiekin zerikusi zuzena daukate. Tituluak Goi Mailako

27. irudia. Titulazio-eskaintzaren bilakaera



* Egilea: Ibon Serrano Lasa (Industri Antolakuntza Saila, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Mondragon Unibertsitatea).

Ingeniaritza edota Ingeniaritza Teknikokoak izan daitezke, graduatu ondoko tituluak ahaztu gabe (master- eta doktoretza-ikasketak). Esan beharra dago azken urteotan tituluen aukera zabaldu egin dela, bai MGEPn, baita MUn ere, 27. irudian ikus daitekeen bezala.

Ikasle-kopuruari dagokionez, ikus 28. irudia. Esan daiteke goranzko joera berdina eman dela.

MGEP da MUko ikasle gehien biltzen dituen fakultatea; zehazki, 4.000 ikasleren %60, hau da, 2.400 ikasle inguru daude matrikulaturik bertan. Langileak, berriz, 2004. ikasturteko datuei heldurik, 220 pertsona dira, irakasle eta gainontzeko langileak kontuan izanik.

MGEP ETA ENPRESAK

Bere sustrai, historia eta eboluzioari jarraiki, MGEPk lotura estua dauka enpresamunduarekin. Alde batetik, kooperatibako erabaki-sisteman hainbat enpresak hartzen

du parte Errektore Kontseiluan; horietatik, MCC, ULMA, FAGOR eta JMA dira erakunde adierazgarrienak. Bestalde, eguneroko jardueretan harreman egonkorra ematen da 100 bat enpresarekin. Harreman hau, karre-rama amaierako zein I+G proiektuen bitartez, etengabeko irakaskuntza eta ikasleen praktikak eta ikasketak lan-txandakatzearen bitartez gauzatzen da, batik bat. Enpresa horietatik %40k ez daukate zerikusirik kooperatiba-munduarekin.


Harreman honek isla desberdinak dauzka, baina zenbait azpimarratzekotan, ikasketen orientabide praktikoa eta ikasleen kolokazio azkar eta ikasketetara egokitua nabarmendu-ko lirateke.

EUSKARAREN PRESENTZIA

Euskarari buruzko adierazleak MGEPn

Adierazle hitzaz datu kuantitatibo edo zenbakarriak adierazi nahi dira. Datu hauek *Euskola* deritzan MGEP barneko talde lan

28. irudia. MUn matrikulatutako ikasle-kopuruaren bilakaera



baten laguntzaz jasoak dira. Talde iraunkor hau bere borondatez parte hartzen duen Eskolako 12 bat langilez dago osatuta; horietako bat arduraduna da eta astero 3 orduko liberazioa dauka. Zuzendaritzaren onespenez eta bultzadaz jarduten du *Euskolak*.

Ondoren aurkezten diren adierazleak Eskolako jardura desberdinen arabera daude sailkatuta, eta arlo bakoitzeko adierazle garrantzitsuena azalduko da. Hauek dira jarduerak:

- Ingeniaritzako 1. zikloa edo Ingeniaritza Teknikoa eta 2. zikloa edo Goi Mailako Ingeniaritza.
- Ingeniaritzako proiektuak. Proiektu hauek gehienek urtebeteko iraupena dauka-

te eta enpresa barruan egiten dituzte ikasleek.


- Goi-mailako hezkuntza-zikloak.
- Etengabeko hezkuntza.

Azkenik, lankideen euskara ezagupenez ere aztertuko da.

Ingeniaritzako 1. eta 2. zikloak

29. irudia ikus daitekeenez, Eskolak eskaintzen dituen kredituen ehuneko handi bat euskaraz jaso dezake ikasleak. Unibertsitate pribatua izaki, kredituen eskaintza honek batik bat, beste edozein arrazoren gaitetik, ikasleen eskaria bete nahi du.

29. irudia. Ingeniaritzan euskaraz eskainiriko kredituen ehunekoa



Euskara	1. zikloa					2. zikloa				
	M	D	I	E	T	A	An	I	In	T
1999-2000 ikasturtea	68,7	50,7	42,7	73,2	58,825					
2000-2001 ikasturtea	80	51	43	77	62,75					
2001-2002 ikasturtea	85	51	43	77	64					
2002-2003 ikasturtea	85	62	69	90	34	68	53			13,25
2003-2004 ikasturtea	85,7	95,4	78,6	99,2	53,4	82,46	3,3	92,2	21,1	22,2
2004-2005 ikasturtea	85,7	90,2	69,5	84	67	79,28	6,6	100	51,1	2,5

M: Mekanika **I:** Informatika **T:** Telekomunikazioak **An:** Antolaketa
D: Diseñoa **E:** Elektronika **A:** Automatika **In:** Industria

Azken urteotan ematen ari den euskara-eskariaren gorakadak kreditu-eskaintzaren etengabeko moldaketa eta goranzko joera ematera bultzatzen du. Moldaketa hau ez litzateke horren azkarra izango ez balitz MGEP eta bertako irakasleen aurreprestakuntza edo ahaleginarengatik (ikus 29. irudia).

Ingeniaritzako proiektuak

Adierazle hau ikasleak urtebetez enpresan eginiko lan eta proiektua azaltzeko aurkeztu duen dokumentazioari dagokio. Datuok 30. irudian aztertuz gero, ez dirudi emaitza ona denik, baina kontuan izan behar da aurkeztu beharreko dokumentazioa Eskolarako izateaz gain, dagokion enpresarako ere bada. Azken arrazoi horrek, proiektua ebaluatu behar duen tribunalaren osaeraz batera, nahiko zaila egiten du emaitza bikaina erdieste. Edozein modutan, eta irudian ageri denez, azken urteotan, eta kasu honetan ikasle askoren bultzada eta motibazioari esker, euskaraz aurkeztutako proiektuen kopuruak goranzko joera nabarmena izan duela baieztatu daiteke (ikus 30. irudia).

Goi-mailako hezkuntza-zikloak

Tradizionalki Lanbide Heziketaz ezagutua izan den jardueraz ari gara kasu honetan. Aktibitate honetan bi adierazle aurkeztu dira: alde batetik, euskaraz eskaini ohi den ziklo- edo ikastaro-kopurua; bestetik, eskolak euskaraz jasotzen dutenen talde-kopurua.

Lehenengo adierazlea erabat egonkortua dago; azken urteotan, 6 ziklotatik 5 dira euskaraz eskainirikoak, %83, hain zuzen ere. Bigarren adierazleari dagokionez, berriz, azken 4 urteotan igoera jarraitua suma daiteke euskal taldeen kopuruan; horrela, ondorioztatu daiteke ikasle gehienek goi-mailako hezkuntza-zikloen ikasketak euskaraz jasotzea nahi dituela (ikus 31. irudia).


Enpresa-mundura zuzenduriko etengabeko hezkuntza

Eskolako jarduera garrantzitsu bat da hau. 2003-2004 ikasturtean 200 bat ikastaro, master eta ikastaro aurreratu eskaini ziren

30. irudia. Euskaraz aurkezturiko karrera-bukaerako proiektuak

	2000-2001	2001-2002	2002-2003	2003-2004
Txostenak	301	232	269	290
Euskarazko txostenak	13	19	27	39
Euskarazko txosten %	4,32	8,19	10,04	13,45


Euskaraz aurkezturiko proiektu %



31. irudia. Euskaraz eskaini den ziklo-kopurua

	2000-2001	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005
Ziklo eskaintza guztira	6	6	6	6	6
Ziklo eskaintza euskaraz	5	5	5	5	5
Ziklo % euskaraz	83,33	83,33	83,33	83,33	83,33
Talde kopurua	19	21	19	17	17
Euskal taldeak	7	12	11	10	11
Euskal talde %	36,84	57,14	57,89	58,82	64,71

Hezkuntza zikloak



2.429 ikaslerentzat hezkuntza ez arautuaren arloan. Ikastaro hauetako ikasle gehienak enpresa-mundutik datoz eta oso zaila suertatzen da jatorri desberdinetako eta adin helduagoko jendearengandik euskarazko eskaria jasotzea, are gehiago gai teknologikoak garatzen direnean, batik bat. Kasuak kasu, azken urteotan bada katalogoan ikastaro konkreturen bat era egonkorrean euskaraz eskaintzen dena eta arrakasta badaukana. Bestalde aipatu behar da “in company”, edo eskaria luzatu duen enpresa konkretura egokitutako ikastaroetako zenbait euskaraz eman izan direla azken urteotan.

Beraz, eta ondorio bezala, kasu honetan nahiz eta MGEPk gaur egungo egoeran askoz gehiago ezin duen egin, prestatuta egon beharko du etorkizunean eskaintza hau luzatzeko; kontuan izan behar baita azken urteotan lan mundura murgiltzen ari den

ikasle euskaldunen kopurua ere handitzen ari dela eta badirela enpresak euskara-mailan nolabaiteko kontzientzia eta planak ere ari direnak osatzen.

Langileen euskara-ezagupena

Neurtu den adierazlea izan da MGEPko langileek euskaraz elkarrizketa arrunt batean moldatzeko daukaten gaitasuna. Aspektu honetako emaitzak oso onak direla esan daiteke, irakasle zein gainerako langileen %90 inguru euskalduna dela esan baitaiteke.

Honek ez du esan nahi irakasle oro gai denik eskolak euskaraz eman ahal izateko, alfabetatze-mailak eta euskarriak (adibidez, dokumentazioak) bere eragina baitaukate. Halaber, kontuan hartu behar da kopuru hau txikia dela edo txikituz doala, gainera.

Kontratazio berriak egiteko orduan, euskararen ezagutza aldagai kualitatibo garrantzitsu bat izaten da; horrek, langileen trebakuntza-planekin batera, proportzioa hobetzea ahalbideratu du (ikus 32. irudia).

MENDEBERRI PROIEKTUA

Mendeberrri proiektua hezkuntza-sistemaren berriz diseinatzeko proiektu garrantzitsu bat da MUn. Proiektu hau MUK 2004-08 urteotarako onartu duen Plan Estrategikoan zuzenean eta ezinbestean sustraitzen da.

Mendeberrri proiektuak, beste lan ildo batzuez gain, PBLren (*Project Based Learning*) ezarpena kasu, eleaniztasunari berebiziko garrantzia ematen dio. Hau da, ikasleak bere ikasketen bukaeran gai izan beharko du euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez moldatzeko eta enpresa-munduan integratzeko. Beraz, eta euskarari dagokionez, hizkuntza hau bultzatu eta sustatzeko plan eta aktibitateak

Mendeberrri bertatik jaioko eta jarriko dira abian.

Lan-ildo eta baliabide ekonomikoetarako buruzko zenbait apunte


Aipaturiko lan ildoak honoko arloetan gauzatzen dira MGEPn:

- Kredituen eskaintza.
- Irakasleen trebakuntza.
- Dokumentazioa euskaratzea.

Kredituen eskaintzan, lehen komentatu den bezala, helburua da euskaraz Ingeniari-tza-ikasketak burutu nahi dituen ikasleen kopuru nahikoa matrikulatzen den heinean urtetik urtera lerroak irekitzen joatea, kontu izanda ingelesezko eskolak tartekatuko direla gero eta gehiago, bai gaztelaniazko lerroetan, baita euskarazkoetan ere.

Irakasleen euskarazko trebakuntza. Bai oinarrizko mailan, bai alfabetatze-maila aurreratuetan Eskolak aukera ematen die langileei euskarazko maila hobetzeko.

32. irudia. Langileak nola modaltzen diren euskaraz



Horrela, matrikulazio-kostuen %75 Eskolak bere gain hartzen du eta lanorduak egokitu egiten dira; euskaltegia aukeratzea, berriz, interesatuaren esku geratzen da. Ordu-liberazio konkretu batzuk ere eman daitezke urtero, sail bakoitzaren Gestio Planeko trebakuntzaaurrekontuetatik abiatuta.

Testuak edo dokumentazioa euskaratzeari gagozkiolarik, nahiz eta baliabideak nahiko mugatuak izan, hainbat aukera daude. Testuak nolabaiteko merezimendu edo justifikazio bat daukanean itzulpengintza zerbitzuen aukera zabal daiteke, baina nola edo hala, irtenbide ohiko eta azkarrena izaten da eskolak emateko erabiltzen diren apunteak euskaratzearen ardura irakasleak beraien gain hartzea.

Edozein modutan, testugintzaren auzi hau ez da erreza, ikasgaiak eta berauen programak etengabe aldatzen diren neurrian, itzulpengintzan xahututako ahalegin itzel asko ezerezean gera baitaitezke. Libururen bat itzultzekotan, oso argi eduki behar da bibliografia oinarri-oinarrizkoa edo ezinbestekoa osatzen duen ala ez. Kasu honetako lan-ildoak klasean erabili beharreko apunteen euskara-maila eta presentzia bermatzean gehiago oinarritu beharko lirakeela uste da.

Giza Baliabideak

Lehenago aipatu den legez, giza baliabideak *Euskola* izeneko lankideen borondatezko Euskara Batzordean daukate oinarria. Lan-talde honek Zuzendaritzaren onespena dauka eta bertatik jaiotzen dira euskararen aldeko inizatiba gehienak. Bestalde, *Mendeberri* proiektuak ere badauka MUn *Eleaniztasun jarraipen taldea* deritzon lantalde iraunkor bat, zeinak euskarazko irakaskuntzaz gain ingelesaren barneraketan dauka erronka nagusi bat.

ADIERAZLE KUALITATIBOAK

Orain arte adierazle kuantitatiboak eta euskara-plangintzaren egitura eta baliabideei buruz hitz egin dugu, baina merezi du aspektu kualitatiboetan ere zertxobait sakontzea MGEpN euskararen osasunaz beste ikuspegi bat emateko. Aspektu garrantzitsuenak hurrengo hauek izan daitezke.

Eskolako langileen arteko 1. harremana euskaraz gauzatzen da gehienbat. Horrek hasierako hesiak gainditzea dakar eta euskalduna dena libreago sentitzen da euskaraz jarduteko bere lan-ingurunean.

Bai MGEpN orokorrean, baita sailetan ere, bilera asko bi hizkuntzetan eramaten dira aurrera, eta maiz euskara soilik erabiltzen da.

Ikasleei zuzenduriko komunikazio digital guztia euskaraz kontsulta daiteke, Internet zein intranetean. Horren adibide izan daitezke liburutegia kudeatzeko programak, matrikulazioa egiteko eta notak kontsultatzeko programak, MUko zein MGEpko web orriak.

Paisaia osatzen dute osagaiez ari garelarik, kartelak, informazio eta komunikazio ofizialak eleanitzak dira erabat.

Azkenik, azpimarratu beharra dago ikasleen euskararekiko kontzientzia sakona. Alde bategatik, euskara-talde baten egitura egonkorra; bestetik, Eskolako eguneroko bizitzan, ikasle euskaldun gehienek euskaraz bizitzeko daukaten ohitura zabala, klase barnean zein kanpoan.

ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEN ILDOAK

Dokumentu honetan agerian uzten denez, euskararen egoera MGEpN osasun-

tsua da, oro har; bai alderdi kuantitatiboak, bai kualitatiboak izanik kontuan.

Hori baieztatzeko, zenbait aspektu konkretu kontuan izatea komenigarria litzateke:

- Debagoiena inguru euskaldunean dago kokatuta. Ikasle eta langile asko bailara honetakoak dira; halaber, beste jatorri ez horren euskalduneko ikasleak zein langileak oso ondo moldatzen eta integratzen dira bertan.
- Nahiz eta kokapen geografikoaren abantaila izan, esan beharra dago, halaber, teknologia- eta ingeniari- munduak ez direla bereziki historikoki euskararen gordailu eta bultzatzaile izan; arlo honetan, Eskolari bere lana ere aitortu behar zaio.
- MGEPrek historian euskarak izan duen garrantzia. Jatorri euskalduneko zentroa izaki, Eskola osatzen duten kolektibo guztiak oso kontzientziatuta daude aspektu honetan. Egin den lan asko borondatez

izan da, baina bere saria izan du emaitzetan eta egungo egoeran. Zuzendaritzaren onospena oso garrantzitsua izan da lan hau aurrera ateratzeko.

Puntu argiak nabariak dira eta etorkizunera begira positiboak izateko arrazoiak badaude; hala ere, badaude hobeto zehaztu beharko liratekeen puntu batzuk ere, batik bat euskararen plangintza sistematizatu eta egituratua gauzatzeari dagozkionak. Hain justu, horri ekiten eta horretan dihardu egun Euskara Lantaldeak.

Hurrengo urteei begira plangintza honek norabide bat ezartzeaz gain, helburu konkretu, plan eta lan ildo zehatz batzuk, eta egon badauden baliabideak ezagutzea eta probetxu ateratzea izan beharko luke oinarri. Horretarako argigarri eta eredugarriak izan daitezke Euskal Herriko gainerako unibertsitateek eginiko lan, plangintza eta esperientziak. ■

Euskara enpresaren kudeaketan: kasu honen jatorria

Ezagutza Klusterraren azalpena

Agerikoa da enpresen jardunean euskara erabiltzeak onura asko dakarkiola organizazioari, eta bere ekoizkinen balioa areagotzeaz gain bezeroei eskaintzen dien zerbitzua hobetzeko lagungarri dela.

Ezagutzaren Klusterrak enpresa-munduko aldaketen abangoardia izan nahi du. Unibertsitatearen, enpresaren, aholkularitza-enpresen eta erakunde publikoen arteko zubi izatea saiatu gara. Ezagutzaren Klusterrak erronka hau bere gain hartu du eta euskararen erabilpena erakundeetan sustatzeko ekimen ezberdinak burutu ditu denboran zehar. Besteak beste, 1998tik gaur egun arte kudeaketa aurreratutako enpresei buruzko 22 kasu euskaraz idatzi dira eta 2001ean kudeaketaren arloan euskarazko terminologia-glosarioa egin zen Klusterraren ekimenaz.

Ildo hau jarraituz, irekitako bidea lantzen segitzea erabaki genuen. Ezagutzaren Klusterreko bazkide sarean euskara-planetan ari ziren hainbat enpresaren esperientziak trukatu eta elkarren arteko lorpenen berri izatea hasieran eta aurrerantzean elkarlanean jarduteko asmoz, *Euskara eta Kudeaketarako Foroa* sortzeko premia hauteman zen Klusterretik, eta azkenean martxan jarri zen 2003 urtean.

Foroaren helburu nagusiak euskara kudeaketaren arloan erabiltzeak lanari ematen dion balio erantsia aztertzea eta hori jakinaraztea, kontzeptuak eta egoerak argitzea eta esperientziak trukatzeko, eta ikuspegi eta metodo berriak elkarrekin eta elkarrengandik ikastea izan dira.

Foroko partaideek 2003ko abendutik 2005eko martxora arte egin zuten lan. Guztira, 20 erakunde ezberdinetako 37 pertsonak parte hartu zuten: ELHUYAR eta EZAGUTZAREN KLUSTERRA erakunde dinamizatzaile gisa eta AZTI, BATZ, EITB, EMUN, MONDRAGON ESKOLA POLITEKNIKOA, ESTE, EUSKO JAURLARITZA, GAIKER, IDOM, IKERLAN, IMH, LABEIN, MCC, ROBOTIKER, TEKNIKER, UZEI, VISESA, eta EHU partaide gisa.

Hauetaz gain, beste erakundeak momentu zehatz batzuetan foroarekin bat lanean aritu ziren: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila; Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza; Bizkaiko Foru Aldundia, Kultura; Gipuzkoako Foru Aldundia; EHU-ko Euskara Errektoreordetza; Ekonomisten Euskal Elkargoa; Energiaren Euskal Erakundea (EEE); ABB Niessen; AHIZE; Danobat; Elkargi; Euskarazko Komunikazio Taldea; Kondia; Maier Koop. E.; MCC; Pasaiaiko Portua eta Urola Kostako HITZA.

Hona hemen Foroan parte hartu zuten pertsonen zerrenda: Leire Arrizabalaga eta Igor Lezamiz (dinamizatzaileak), Igor Álvarez, Blanca Arosa, Gorka Aurre, Itziar Azkue, Edurne Bilbao, Rafael Enparantza, Urrate Etxaburu, Alaitz Etxeandia, Ander Etxeberria, Amaia Gabilondo, Nerea Ganboa, Ainhoa Garayar, Nikolas Gardner, Izaskun Ipiñazar, Asier Larrinaga, Agurtzane Loidi, Xabier Manterola, Jesús Matey, Ibon Muguruza, Itziar Navarro, Joxe Ramón Elortza, Ainhoa Saitua, Ibon Serrano, Joxe Mari Ulazia, Mikel Urdangarin, Karmelo Uriarte, Xavier Uriarte, Arantzazu Urtzelai, Arrate Zamakola, Joxean Zapirain, Amaia Zarrabeitia, Eneko Zarraoa, Jon Zuazabeitia, Karmele Zuazubiskar eta Miren Zubizarreta.

Pertsona horien lanaren fruitu gisa kaleratu zen 2005ean '*Euskara enpresaren kudeaketan. Gakoak eta esperientziak*' izeneko txostena. Txosten honetan aztertzen diren gaien artean egungo egoeraren diagnostikoa, euskararen balio erantsia, euskara kudeaketan txertatzeko gakoak, eragileak eta baliabideak azpimarratzekoak dira. Honez gain zortzi esperientzia praktikok osotzen dute informea: Batz S. Coop, EITB, ESTE/EUGT, IMH, Labein Fundazioa, Mondragon Goi-Eskola Politeknikoa, Tekniker eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Agiri honetan horietako bat aurkeztu da; besteak aurkituko dituzu dokumentu honetatik ateratakoan.

Oharra: Txosten osoa eskuratzeko Ezagutzaren Klusterraren Web orrian eska daiteke. <http://clusterconocimiento.com>